

SAILBURUA
LA CONSEJERA

AGINDUA, 2019KO APIRILAREN 5EKOA, LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ BERMATZEN DA DEITUTAKO GREBAN ZEHAR EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILEKO ZENTROETAN LAN-KONTRATUDUN LANGILEEK EMATEN DITUZTEN SUKALDE ETA GARBIKETA ARLOETAKO FUNTSEZKO ZERBITZUAK EMANGO DIRELA.

ELA sindikatuak greba deitu du 2019ko apirilaren 8, 9, 10, 11 eta 12rako, eta greba horrek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketa zerbitzuetako lan-kontratudun langileei eragingo die.

Grebaren helburuak, deitzaileen hitzetan, honako hauek dira: "langileriaren lan baldintzak defendatu eta hobetu eta lan hitzarmen berri bat lortzea da alde batetik, eta bestetik, Eusko Jaurlaritzak eskoletako jantokien kudeaketaren inguruan egin duen proposamena bertan behera geratzea da."

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea eta informazio-askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea baliatzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, nahitaezkoa da neurri egokiak ematea Erkidegoarentzako ezinbesteko zerbitzuak bete daitezen, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin, proportzionaltasunaren printzipioa zorrotasunez zaindu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, "egokitasun-judizioa" deritzona; egitatea aztertuta, ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, "beharrizan-judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Konstituzio Auzitegiak zenbait alditan adierazi du haren iritzia gai horren inguruan, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003 epaiak.

Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhertasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela –amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan–, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Lehen aipatu bezala, greba deialdia 2019ko apirilaren 8, 9, 10, 11 eta 12rako da, egun osokoa, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko sukalde eta garbiketa zerbitzuetako lan-kontratudun langileak daude deituta, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko ikastetxeetan.

Greba deialdi honek, besteak beste, honako zentro hauei eragiten die: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoei, Bigarren Hezkuntzako zentro publikoei, Hezkuntza Bereziko berriazko ikastetxeei eta Lanbide Heziketako ikastetxeei.

Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, eragindako langileak eta zentroak honako hauek dira:

MAILA	ZENTRO KOPURUA
GARBIKETA	105
SUKALDEA	108

Bizitzarako, osasun fisikorako eta moralerako, hezkuntza eta lanerako eta osasuna babesteko eskubideak Konstituzioaren 15., 27., 35.1 eta 43.1 artikuluetan jasotzen dira; halaber, Nazio Batuen Erakundeak Haurren Eskubideei buruz emandako Konbentzioak (zeina 1990eko azaroaren 30eko berreste-agiriaren bidez berretsi baitzuen Espainiak) 18. eta 24. artikuluetan jasotzen du haurrek ahalik eta osasun maila handiena izateko eskubidea; eta horiek bermatzea botere publikoen zeregina da; horretarako, prebentzio-neurriak eta beharrezko zerbitzuak emateari lotutakoak hartuko dituzte, zerbitzu horiek babesturik gera daitezten greba-eskubidearen erabilera legitimoa egiten denean. Babes horrek, beste alde batetik, ezin du inola ere greba-eskubidearen edukia hustu, bat etorritz ezarpenak duen izaera mugatzailearekin, Epaitegi Konstituzionalak ezarritako dotrinaren arabera.

Zerbitzu horien ezinbestekotasuna eragindako eskubideen oinarritzko izaeratik eratortzen da –hezkuntza eta haur eta nerabeen babes eta garapen osoarekin harremana dutenak–, eta Estatuko araudian ere islatzen da, hala nola urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoan, zeinak Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen baitu; EAEko eremuari

dagokionez, berriz, otsailaren 18ko 3/2005 Legea dago, hurrei eta nerabeei arreta eta babesa ematekoa.

Hori dela eta, greba-deialdiak eragindako zentroak haurren egonleku direnez egunaren zati handi batean, ezinbestekoa da neurriak hartzea, bermatze aldera zentro horretan gutxieneko higie- eta osasun-baldintzak betetzen direla, eta ez dela osasunerako, hazkunderako eta garapenerako arazorik eragiten.

Sektore honetan arestiko aurrekaririk ez badago ere, bada, ordea, Hezkuntza Sailaren menpeko zentroetan garbiketa zerbitzuko enpresa esleipendunetako langileek egin zuten grebarena. Izan ere, azkenekoa 2016ko azaroaren 7, 8, 9, 10 eta 11n izan zen. Orduko greba-deialdia honen antzekoa zen bi arlotan: batetik, denbora-eremuari dagokionez, elkarren segidako 5 egun oso dira bi kasuotan; bestetik, lurralde- eta funzio-eremuetan antzekotasun nabarmena dago, baita grebak eragindako kolektiboen kasuan ere. Horrengatik guztiarengatik, aipatu beharra dago aurrekari horrek ahalbidetzen duela deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan –tartean grebarako eskubidea- izan dituzten eragin positibo eta negatiboak aztertzea, aipatutako aurrekaria greba honetako gutxieneko zerbitzuak ezartzeko premisa juridikoa ez bada ere –inferentzia hori espreski debekatzen du dotrina konstituzionalak-

Beste ezaugarri garrantzitsu bat deitutako lanaldietan datza; izan ere, greba lanaldi arruntetan garatuko da eta, ondorioz, ikasleak ikastetxeetara ohi bezala bertaratuko direla aurreikus daiteke, hezkuntza sektoreko grebetan eta orokorretan ez bezala.

Gutxieneko zerbitzuak ezartzerakoan, kontuan hartu beharrekoa da eragindako ikastetxeetan Haur Hezkuntzako ikasleak daudela, hau da, adin horietako umeengan are funtsezkoagoa da higiezia modu berezian zaintzea, aintzat hartuta oso adin txikiko neskato-mutikoak (6 urtera bitartekoak) bertaratzen direla. Hain zuzen ere, bereziki aintzat hartu behar da haur txikienek ahalmen kognositibo txikiagoa dutela higienari dagokionez. Halaber, greba deialdiak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleei zein Lanbide heziketakoei eragiten die. Bada, horietan ezinbestekoa da oinarrizko garbitasuna egotea, ikastegiok erabiltzen dituztenei osasun-arazorik ez eragiteko.

Horiek guztiak ikusita, eta kontuan hartuta mota honetako greba batean funtsezko eginkizunak bermatuko dituzten gutxieneko zerbitzuak ezarri gabe eragin daitekeen kaltea lortu nahi den helburua baino handiagoa izan daitekeela, Agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu gobernu-agintaritzak honek.

Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Legegintzako Errege Dekretuaren 10.2 artikulua honako hau xedatzen du: «greba egiten denean edozein zerbitzu publiko edo onartuta dagoen eta geroraezina den beharriazko edozein zerbitzu eskaintzeko enpresetan, eta larritasun bereziko egoerak daudenean, gobernuko agintaritzak beharrezko neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzuen funtzionamendua ziurtatzeko» eta «Gobernuak, era berean, horretarako beharrezkoak diren esku-hartze neurriak har ditzake».



Arau horretan, zeinak aitortuta baitu izaera konstituzionala (Konstituzio Auzitegiaren 11/1981 Epaia, apirilaren 8koa [RTC 1981\11]), honako hau ezartzen da, Konstituzioaren greba-eskubideari buruzko 28.2 artikuluaarekin bat etorritz: «Eskubide horren erabilera arautzen duen legeak beharrezko bermeak ezarriko ditu erkidegoarentzako funtsezko zerbitzuen mantentzea ziurtatzeko», azken batean, gobernu-agintaritzari ematen zaio edozein motatako berme-neurri hartzeko, greba kasuan ezinbesteko zerbitzuei eusteko, eta hori egiteko neurrietako bat administrazio-ebazpenaren bidez jarduerari eusteko ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak ezartzea da, eta lan-prestazioa eskaini behar duten langileei haiek bete ditzaten eskatzea.

Horren ondorioz izapidetu da Lan Harremani buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege lege Dekretuaren 10.2 artikulua aipatzen duen prozedura. Entzunaldi-izapidea egin da eragindako alderdiekin, hau da, deialdia egin duen sindikatuarekin eta Hezkuntza Sailarekin, Gobernuaren erabakiak ukituko dituen zerbitzu eta langileei buruzko proposamenak egin zitzaizkien.

Lan eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 84/2017 Dekretuaren 3.1 artikulua Lan eta Justiziako sailburuari ematen dizkio azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuan jasotako eskumenak (24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen). Dekretu horren 16. artikuluan, Lan eta Justizia Saila sortzen da, eta, beste egiteko eta jardun-arlo batzuen artean, lan-arloko legeriak lan-harremani buruz ezartzen duena egikaritzeko egitekoa esleitzen zaio, eta ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuaren bidez eskuordetzen zaio behar diren neurriak ezartzeko eskumena, zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzerazineko zerbitzuak eskaintzeko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeetan greba-eskubideaz baliatzen direnean autonomia-erkidegoko funtsezko zerbitzuei jardunean eutsiko zaiela ziurtatzeko.

Horregatik guztiatik, Lan eta Justizia sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ikastetxeetan sukalde eta garbiketa zerbitzuetako lan-kontratudun langileek 2019ko apirilaren 8, 9, 10, 11 eta 12rako egingo den greba deialdian parte hartzeko eskubidea balia dezakete, betiere ondoren adierazten diren gutxieneko zerbitzuak ematen badira:

1.1. Haur Hezkuntzako zentroetan eta Hezkuntza bereziko berariazko ikastetxeetan:

Egunero garbituko dira lurzorua, askak, komunak eta garbigelak. Bestalde, hondakin organikoak bildu eta botako dira.



Oro har zerbitzu horiek emateaz arduratzen diren langileen % 50 arduratuko dira zeregin horiek egiteaz, eta horrek ez du inola ere ekarriko eguneko ohiko lanaldia luzatzea. Aipatutako %50 pertsona bat baino txikiagoa bada, bera arduratu beharko da gutxieneko zerbitzuaz; emaitza pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gutxiago, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

1.2. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan eta Lanbide Heziketako zentroetan, 2019ko apirilaren 9an –asteartean- eta apirilaren 11n –ostegunean- komunak eta bainugelak garbituko dira. Bestalde, egun horietan bertan, hondakin organikoak bildu eta botako dira.

Oro har zerbitzu horiek emateaz arduratzen diren langileen % 30 arduratuko dira zeregin horiek egiteaz, lana burutzeko behar den gutxieneko denbora erabiliz; eta horrek ez du inola ere ekarriko eguneko ohiko lanaldia luzatzea. Aipatutako % 30 pertsona bat baino txikiagoa bada, bera arduratu beharko da gutxieneko zerbitzuaz; emaitza pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gutxiago, gutxieneko zerbitzuak eman beharreko denbora kalkulatzeko, zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldia zenbatekoa den hartuko da kontuan.

Bigarrenena.- 1. Gerta daiteke gutxieneko zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak egotea; horrela bada, agindu honetan finkatutako ehunekoak eta ratioak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan. Aipatutako zerbitzuak betetzeari dagokionez, zereginok grebara deitu eta grebarako eskubidea baliatu ez duten langileek betetzea hobetsiko da.

2. Enpresako Zuzendaritzari dagokio, langileen ordezkariari entzun ondoren, dagokien langileei zereginak esleitzea. Nolanahi ere den, egoera orotan errespetatuko dira aurreko artikuluan eta indarrean dagoen legerian jasotzen diren mugak.

Hirugarrena.- Agindu honen aurreko idatzi-zatietan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kanpokotzat joko da, eta eragileak izango dira erantzule, eta indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera eskatuko zaie erantzukizuna.

Laugarrena.- Aurreko ataletan xedatutakoak ez ditu inola ere mugatzen greba araupetzen duen araudiak greba-egoeran dauden langileei aitortzen dizkien eskubideak. Halaber, ez ditu mugatuko greba arrazoitzen duten eskaeren izapideak eta ondorioak.

Boskarrena.- Agindu hau jakinarazten den egunean sartuko da indarrean.





Seigarrena.- Ebazpen hau jakinarazi interesdunei; zehazki, Herri Administrazioen Administrazio Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Halaber jakinaraziko zaie ebazpenak amaitu egiten duela administrazio-bidea, eta administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez daitekeela, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenean dagokion salan. Horretarako epea 2 hilabetekoa izango da, jakinarazten den egunetik aurrera zenbatuta. Hori guztia bat etorritz Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa araupetzen duen uztailaren 13ko 29/1992 Legean xedatutakoarekin.

Era berean, eta Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritz, honako hau ere jakinarazi behar zaie: agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtoa aurkez daitekeela Lan Administrazioako Agintaritza honetan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik Aurrera zenbatzen.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 5ean



MARÍA JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTITIA
LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUA

